

# **IRUÑERRIKO ETXEBIZITZAK ETA ERAIKINAK ZAHARBERRITZEKO BULEGOA (EEZB) KUDEATZEKO UDALEN BATASUNAREN HITZARMENA.**

## **I. KAPITULUA. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. ARTIKULUA. HITZARMENAREN XEDEA.**

Hitzarmen honi atxikita dauden Udalek borondatezko Batasun bat eratu dute, haren bidez zerbitzu komunak emateko, ondasunak eta instalazioak batera erabiltzeko eta beren interesak babestu eta sustatzeko, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 7/1990 Foru Legearen Bigarren Tituluaren III. Kapitulua babesean.

Horren ondorioz, eta xede horiek lortze aldera, hitzarmenaren xedea da Iruñerriko Etxebizitzak eta Eraikinak Zaharberritzeko Bulegoa (aurrerantzean EEZB) kudeatzea.

### **2. ARTIKULUA LURRALDE ESPARRUA.**

Jarduketarako lurralde esparru gisa ezarri da 289/1988 Foru Dekretuak II. eremurako ezarritako esparru bera (hots, 363/1997 Foru Dekretuak V. eremu gisa ezarritakoa), bai eta hitzarmenari atxikitzeko eskatzen eta onartzen diren Udal mugakideak ere.

Gaur egun, 35 Udal hauek dira:

ANTSOAIN, ANUE, ARANGUREN, ATARRABIA, ATETZ, BASABURUA, BELASKOAIN, BERIAIN, BERRIOBEITI, BERRIOZAR, BIURRUN-OLKOTZ, BURLATA, EGUESIBAR, ESTERIBAR, ETXARRI, EZKABARTE, GALAR, GOÑI, IMOTZ, ITZA, LANTZ, NOAIN-ELORTZIBAR, ODIETA, OLAIBAR, OLLARAN, OLTZA, ORKOIEN, TEBAS-MURU ARTERDERRETA, TXULAPAIN, UHARTE, ULTZAMA, ZABALTZA, ZIRITZA, ZIZUR NAGUSIA eta ZIZUR,

### **3. ARTIKULUA ORDEZKARITZA-ORGANOAK.**

Batasuna eta EEZB kudeatu eta ordezkatzeko, Udalek honako organo hauek osatu dituzte:

- ✓ Ordezkarien Batzarra.
- ✓ Batzorde Iraunkorra.
- ✓ Lehendakaritza.

## **II. KAPITULUA. ORDEZKARIEN BATZARRA.**

### **4. ARTIKULUA ERAKETA.**

Hitzarmen honi atxikitako Udaletako Ordezkari guztiek eratuko dute Batzarra. Udal bakoitzak ordezkari bat izendatuko du.

## 5. ARTIKULUA EGINKIZUNAK

Ordezkarien Batzarrak eginkizun hauek izanen ditu:

- Hitzarmena, funtzionamendu araubidea eta lan programak onestea.
- Aurrekontuak eta Udalek aurrekontuei eman beharreko ekarpenak onestea.
- EEZBko langileak kontratatzeko araubidea eta burutzak hautatzea.
- Batzorde Iraunkorra eta Lehendakaria hautatzea.
- Hartzen diren erabakiak Udal bakoitzera helaraztea.
- Eta, oro har, zaharberritzearekin edota erabakitzen diren bestelako gaiekin zerikusia duten kontuak aztertzea.

## 6. ARTIKULUA BILERAK.

Ordezkarien Batzarrak urtean behin egin beharko du ohiko bilera, eta ezohikoa, berriz, Lehendakariak edota Batzorde Iraunkorrek deituta, edo kideen % 25ek baino gehiagok eskatuta.

Deialdiak bilera egin baino 48 ordu lehenago gutxienez helaraziko zaizkie Udalei, eta eguneko aztergaien berri emanen zaie.

Lehen deialdian Batzarraren eraketa baliozkoa izanen da, kideen % 25 baino gehiago bertaratzen badira eta, bigarren deialdian, bertaratzen diren kideen kopurua edozein izanda ere.

## 7. ARTIKULUA ERABAKIAK.

Batzarrak bertan dauden ordezkarien boto haztatuen gehiengo osoz hartuko ditu erabakiak eta, aldi berean, atxikitako Udal guztien % 10etik gorako ordezkariak badute.

Erabakiak lotesleak izanen dira hitzarmen honi atxikitako Udal guztientzat, eta ordezkariak Udalei erabakiak helarazi beharko dizkiete.

Ordezkarien Batzarreko kide bakoitzak boto haztatua izanen du, ordezkariak duen Udaleko biztanle kopuruaren eta hitzarmenari atxikitako Udaletako biztanle guztien artean ezarritako portzentajearen arabera. Ordezkarien Batzarrak boto haztatuaren sistema hori aldatzen ahalko du, baina boto haztatu guztien gehiengo osoa beharko da. Dena dela, ofizioz berrikusiko da, azken biztanleria kopuru ofizialen arabera (horren ondorioz, boto haztatua azken taularen arabera ezarria gelditu da).

## 8. ARTIKULUA IDAZKARITZA.

Ordezkaritza-organoen idazkaritza eginkizunak EEZBeko zuzendariak eginen ditu, baina beste pertsona bat izendatzen ahalko da, egoki ikusten bada, eta bileren akta jasoko du.

### III. KAPITULUA BATZORDE IRAUNKORRA.

## 9. ARTIKULUA ERAKETA.

Batzorde Iraunkorra hiru kidek osatuko dute, Ordezkarien Batzarreko kideek beren artean hautaturik. Hiru urtez behin hautatuko dira, Lehendakaria hautatu aurreko ekitaldian. Gutxienez haietako kide batek zaharberritzeaz bestelako eta EEZBaren sartu beharreko edo EEZBek bere gain hartutako zerbitzu batean interesa duen Udal bateko ordezkari izan beharko du (adibidez: Hirigintza Aholkularitzako Zerbitzua).

#### 10. ARTIKULUA EGINKIZUNAK.

Batzorde Iraunkorrek eginkizun hauek izanen ditu:

- ✓ Aurrekontuak gainbegiratzea.
- ✓ Jarduketak gainbegiratzea.
- ✓ Ordezkarien Batzarraren aurrean erabaki proposamenak egin eta aurkeztea.

#### 11. ARTIKULUA BILERAK ETA ERABAKIAK.

Batzorde Iraunkorra Lehendakariak edo bi kidek deituta biltzen ahalko da eta, bi kide bertaratzen badira, eraketa baliozkoa izanen da. Erabakiak gehiengo osoz hartuko dira, eta kide bakoitzak boto bat izanen du..

### IV. KAPITULUA LEHENDAKARITZA.

#### 12. ARTIKULUA HAUTAKETA.

Lehendakaria Ordezkarien Batzarreko kideek hautatuko dute Batzorde Iraunkorreko hiru kideen artean. Kargua hiru urtean behin hautatuko da, eta kargua gehienez ere hurrenez hurreneko bi agintaldirako izanen da. Batzarraren eta Batzordearen kasuetan bezala, hautaketa karguak duen udal ordezkariaren gainean egiten da; ez, ordea, pertsona fisikoaren gainean.

#### 13. ARTIKULUA EGINKIZUNAK.

Lehendakaritzak eginkizun hauek izanen ditu:

- ✓ Batasunaren eta EEZBaren ordezkari gizona.
- ✓ Jarduketak koordinatzea eta haien jarraipena xehetasunez egitea.
- ✓ EEZBaren urteko kudeaketa-txostena gainbegiratzea.
- ✓ Aurrekontuetan esku-hartzea.
- ✓ EEZBeko langileak kontratatzea.
- ✓ Eta Batzarrari edo Batzordeari egokitua ez dagoen beste eginkizun oro, edota Batzarrak eta Batzordeak espresuki egokitzen dizkietenak.

### V. KAPITULUA ARAUBIDE EKONOMIKOA.

#### 14. ARTIKULUA BALIABIDE EKONOMIKOAK.

Batasunak baliabide ekonomiko hauek izaten ahalko ditu EEZBa kudeatzeko:

- ✓ Atxikitako Udalen ekarpenak.
- ✓ Beste Administrazio Publiko batzuen laguntzak.
- ✓ Entitate eta partikularren ekarpenak, xedatzen denaren arabera.

## 15. ARTIKULUA UDALEN EKARPENAK.

Erabakitakoarekin bat arautuko dira hitzarmen honi atxikitako Udalek EEZBeko zerbitzu bakoitzaren urteko aurrekontu ohikoei egindako diru ekarpenak, oinarrizko irizpideari jarraiki betiere; hau da, erabilera potentziala hartuko da aintzat (biztanleak) eta, nagusiki, benetako erabilera (jarduketak).

Espresuki erabakitakoarekin bat arautuko da onesten ahal den edozein aurrekontu berezi eta, horren ondorioz, baita atxikitako Udalek aurrekontu bereziari egin beharreko ekarpenak ere.

Udal batek 10.000 eurotik gorako kopurua eman behar badu, ordainketa bi kopuru berdinetan zatikatzen ahalko da.

Udalen batek diru betebeharrak betetzen ez baditu, hau da, ekarpena urtealdiaren barruan egiten ez badu, zerbitzua aldi baterako galdu eginen da, dagokion kopurua eman arte, betiere KPlak Nafarroan izan duen urte arteko aldaketaren tasa gehituta.

Bi urtez jarraian ekarpenik egiten ez bada, Udala Batasunetik kanpo geldituko da, bai eta bulegoko zerbitzuetatik kanpo ere.

Udalen batek EEZBekin zorrik balu, Nafarroako Gobernua huraxe ordaintzeko baimendua legoke, Nafarroako Ogasunaren funtsen kargura, indarreko araudiaren arabera.

## VI. KAPITULUA UDALEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK.

### 16. ARTIKULUA ESKUBIDEAK.

Hitzarmen honi atxikitako Udalek eskubidea dute EEZBek garatzen dituen zerbitzuak eskuratzeko, 363/1997 Foru Dekretuan araututako eta Ordezkarien Batzarrean erabakitako eginkizunak betetze aldera.

### 17. ARTIKULUA BETEBEHARRAK.

Hitzarmen honetan aurreikusitakoa betetze aldera, atxikitako Udalak behartuak egonen dira:

- ✓ Ordezkarien batzarrean onetsitako erabakiak hartzera.
- ✓ Dagozkien diru ekarpenak egitera.

## VII. KAPITULUA UDAL BERRIEN ATXIKIMENDUA.

### 18. ARTIKULUA UDALAK ATXIKITZEKO PROZEDURA.

Honela atxikiko zaizkio Udal berriak hitzarmen honi:

- ✓ 1. Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia edo alkatetzaren ebazpena, atxikimendua eskatzeko.

- ✓ 2. Batasunaren ordezkari-organoren erabakia edo ebazpena, atxikipena onesteko (edo errefusatzeko), EEZBeko zuzendaritzak baldintzen inguruko informazioa eman eta gero.

## VIII. KAPITULUA ZERBITZUETATIK BORONDATEZKO BAJA HARTZEA

### 19. ARTIKULUA BORONDATEZKO BAJA HARTZEKO PROZEDURA. BETEBEHARRAK.

- ✓ 1. Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia, baja eskatzeko; baja zer urtealditan izanen duen indarra, urtealdi horren aurrekontua onetsi baino lehen jakinarazi beharko da.
- ✓ 2. Batasunaren ordezkari-organoren erabakia edo ebazpena, EEZBeko zuzendaritzak baldintzen inguruko informazioa eman eta gero.

Borondatezko baja hartu behar duen Udalak bete gabeko diru betebeharrei egin beharko die aurre, halakorik badu. Horrez gain, diru ekarpen berezia egin beharko du, baja eragiten dituen gastu guztien adinakoa, kasu kasuko kalte-ordainak barne, baldin eta bajaren ondorioz langileen artean murrizketarik edo doikuntzarik egin behar badira.

## IX. KAPITULUA HITZARMENAREN IRAUPENA ETA EBAZPENAK.

### 20. ARTIKULUA HITZARMENAREN IRAUPENA.

Hitzarmen honen iraupena mugagabea da, hitzarmena suntsitzeko arrazoi gisa ezarritakoari kalte egin gabe.

### 21. ARTIKULUAK HITZARMENA SUNTSITZEKO ARRAZOIAK.

Hona hemen hitzarmen hau suntsitzeko arrazoiak:

- ✓ Dagokion Foru Dekretuan zedarritutako eremuan sarturiko Udalen % 50en baino gehiagoren osoko bilkurek horrelako erabakia hartzea.
- ✓ Beste Administrazio Publiko, sozietate edo enpresa publiko edo misto batek, edo nortasun juridikoko antzeko entitate batek, EEZB xurgatzea edo haietako batekin bat egitea.

## AZKEN XEDAPENAK.

Nafarroako Toki Administrazioarako indarrean dagoen araudiarekin bat ebatziko dira hitzarmen honetan arauturik ez dauden gorabehera guztiak.